



Esp.kodea: 2019SSEC0059

Gaia: ARAUDI PLANA 2020
Hasiera eguna: 2019/11/11

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2020ko otsailaren 13an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“PROPOSAMENA 2020KO ARAUDI PLANA ONARTZEKO (2019SSEC0059).

Udal Plenoak, Udaltzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 18 bilkuran daudela, aldeko 11 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE), aurkako botu batekin (ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak), eta 6 abstentziorekin (EH BILDU), Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea. Honen 132. artikulua honakoa dio:

Artículo 132. Planificación normativa.

- 1. Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.*
- 2. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente.*

Hori horrela, sailekin kontsulta egin da Ogasun, Diruzaintza eta Ondare sailetatik, Kirola sailetik, Hirigintza sailetik eta Udaltzaingotik jarraian zehazten diren ordenantza proposamenak aurkezten dira, Araudi Planean sar daitezzen. Hori horrela, 2020rako Araudi Plana aurkeztu da, honakoa:

2020RAKO ARAUDI PLANA

Ikusita 39/2015 Legearen 132. Artikuluak xedatzen duena udal honek 2019an onartzea, edota aldatzea proposatzen duen ordenantzen zerrenda jarraian zehazten dena da:

Kodea	H20/00187	Udala	ARRASATE
Data	2020/ots./25	CUDO	000.0055.AAAAHLRW.L.Kd2j
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHLRWL.Kd2j		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2019SSEC0059

Gaia: ARAUDI PLANA 2020
Hasiera eguna: 2019/11/11

OGASUN, DIRUZAINNTZA ETA ONDARE SAILA:

1.- ORDENANTZA OROKORRA ZUZENBIDE PUBLIKOKO TRIBUTU ETA BESTE DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, KOBRANTZA ETA INSPEKZIOA ARAUTZEN DUENA

Ordenantza honen xedea da:

- a) Zuzenbide publikoko tributu eta beste diru-sarrera lokalen kudeaketa hobetzea eta erraztea ekar dezaketen prozedurazko aspektuak arautzea.
- b) Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren aspektuak erregelatzea, hartara horiek errepikatzea saihestuko baita.
- c) Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregelatzea.
- d) Herritarrak informatzea bai indarrean dauden araez, bai tributu-pagatzaileen eskubideez eta bermeez, horien berri jakitea denen interesekoa gerta baitaiteke, tributuzko obligazioak behar bezala konplitze aldera.

2.- ARRASATEKO UDALAREN KONTRATAZIOKO ADMINISTRAZIO PROZEDURAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA. (ALDAKETA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuena onartu ondoren, Arrasateko Udalak 2011ko apirilaren 7an egindako osoko bilkuran onartutako "Kontratazioko administrazio prozedurak arautzen dituen Udal Ordenantza" aldatu beharra dauka, araudi berriari egokitzeko.

Ordenantza honen xedea izango litzateke kontratazioari buruz indarrean dagoen araudi berria garatzea, eta Udalean kontratazio publikoa behar den moduan erabiltzea ekarriko duten prozedurak erabili ahal izateko, udal jarduerak behar den moduan funtzionatzeko, legearekin inolako kontraktotasunik izan gabe eta udal baliabideak era arrazionalen eta efizientean erabili ahal izateko.

3.- 2020RAKO ORDENANTZA FISKALA (ALDAKETA)

Ordenantza honen xedea da udal tributu eta prezio publikoen urteko errebisioak gauzatzea eta berauek eguneratzea, bai zerga, tasa eta prezio publikoen kopuruari dagokionean, bai eta hobari edo

Kodea	H20/00187	Udala	ARRASATE
Data	2020/ots./25	CUDO	000.0055.AAAAHLRW.L.Kd2j
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHLRWL.Kd2j		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2019SSEC0059

Gaia: ARAUDI PLANA 2020
Hasiera eguna: 2019/11/11

exentzioei dagokionean. Honetarako udalak kontuan hartu behar ditu bultzatu edota ekidin nahi dituen egintza edo helburuak.

BIZIKIDETZA ETA PARTEHARTZEA:

1.- HERRITARREN PARTEHARTZERAKO UDAL ERREGLAMENDUA

1.- Arau honen helburua Arrasaten herritarren partaidetza sustatzea eta garatzea da, betiere tokiko demokraziaren gardentasuna eta kalitatea bermatuz.

2.- Arauak herritarren partaidetzaren inguruko helburu hauek ditu:

a) **Ahalduntzea**, herritarrena (norbanako zein antolatu) eta udal eragileena (politikari zein zerbitzari publiko); aktore horiei guztiei prestakuntza eskainiz, herritarrak erabaki prozesuetan txertatuz, askotariko gaitasunak eta ikuspuntuak integratuz, gizarte-sareak josiz, eta udal barruan aldaketak eraginez (sistematan zein pertsonen jarreretan), herritarren parte-hartze kultura sustatzeko udal egitura eta baliabideak indartuz, eta udal barruko lankidetzak handitzeko lan-kultura egokituz.

b) **Herritarren eskubide, behar zein erantzun-bideak zehaztea**; herritarren eskubideak bermatzeko baliabideak jarriz, beren interesak, beharrak eta gogoak partekatze bideak eta baliabideak jarriz, eta udal kudeaketa eta udalerrirako asmoak zein erabakiak gardentasunez eta modu efiziente zein ulerterrazean komunikatzeko sistemak (moduak, epeak, kanalak...) zehaztuz.

c) **Parte-hartzeari zilegitasuna aitortzea eta iraunkortasuna ematea**, alderdien arteko borroka politikoaz harago, udal talde denen artean adostutako partaidetza kultura agenda politikoan zein herri agendan kokatuz, ulertuz herritarren partaidetza instituzio publikoen demokrazia eta ordezkariak aberasteko modua dela, baita herritarrak eta administrazio publikoa hurbiltzeko ere; praktika parte-hartzaileek lagunduko dute botere harremanak birdefinitzen, konfiantzan oinarritutako harreman iraunkorrek sortzen, eta ardurak partekatzen.

d) **Erabaki politikoak herritarren nahi eta gogoen isla izatea**, ekintza publikoak diseinatzerakoan, garatzerakoan eta ebaluatzerakoan herritarrei modu aktiboan entzunez eta entzundakoak kontuan hartuz; herritarren parte-hartze prozesu, momentu eta espazioetan emango den iritzi aniztasuna aintzat hartuz, ezberdin pentsatzen dutenak harremanetan jarrita eraikitzen diren begirada komun berriei balioa emanez, eta emango den garapen pertsonal eta komunitariotik inor baztertu gabe.

e) **Aurrez egindakoa aintzat hartzea eta gardentasunez jokatzeko**; askotariko herritarrekin (genero, adin, jatorri, hizkuntza zein iritzi aniztasun aldetik) aurrez egindako partaidetza-ariketetatik eratorritako erabakiak zein praktikak ezagutuz, errespetatuz eta erabaki horiei gutxieneko aplikazio epe bat emanez gobernantza eredu parte-hartzailearen sinesgarritasuna eta baliagarritasuna bistaratzea, eta hori guztia gardentasun-kultura orokorraren babesean.

Kodea	H20/00187	Udala	ARRASATE
Data	2020/ots./25	CUDO	000.0055.AAAAHLRW.L.Kd2j
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHLRWL.Kd2j		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2019SSEC0059

Gaia: ARAUDI PLANA 2020
Hasiera eguna: 2019/11/11

f) **Gizarte zibila indartu dadila sustatzea**, elkartasunaren, besteekiko errespetuaren, erantzukizun partekatua eta gizarte-kohesioaren gizarte-balioak hedatuz, eta elkartegintza garatu eta indartu dadila sustatuz. Aldi berean, herriaren onerako lanean ari diren herritarren zein herritar-taldeen lana aitortzea eta eskertzea.

KIROLA SAILA:

1.- KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA

Arrasateko kirol instalazioen araudia, Udalbatzak 2015/12/15ean onartu eta GAO-n, 2016/05/26an argitaratu zen.

Ondorengo atalak gutxienez ez dira aplikatzen edo beste modu batera aplikatzen dira:

- 6. artikuluan Eskola kirola aipatzen da eta barnean heziketa fisikoko klaseak ere aipatzen dira. Bai eskola kiroleko jarduerak zein heziketa fisikoko klaseak biltzeko terminologia egokiagoa da kirola eskola adinean erabiltzea.

- 7. artikulua dio “taldeek euren entrenamenduak, lehiaketak eta erakustaldiak burutzeko, udal instalazioak erabiltzeko aukera izango dutela eta taldeetako kirolariak abonaturik egon beharko dutela. Praktikan, eskola kiroleko adinean daudenei, LEK-en izen emanda egonez gero, ez zaie abonatu izatea eskatzen.

- 8.artikulua. Bertan Erabiltzaileen laguntzaileei buruz hitzegiten da. Pasa den ikasturtean martxan jarri genuen laguntzaile txartela, beharbada txartek honen erabilera azaltzea beharrezkoa da.

- 12.artikulua h) atalean adierazi beharra dago “legeak gida txakurren gainean xedatzen duen kasuetan izan ezik”.

- 14.artikulua dioela moldatuta dago, beraz, arautegitik kendu beharra.

- 15 artikuluan abonatu mankomunatuak aipatzen da eta gaur eguneko ez dago horrelakorik.

- 22.e) artikulua dio “hegatsak eta palak (norberarenak) kale berean beste erabiltzaileek ez dagoen unetan soilik erabili ahalko direla”. Praktikan aldiz, elementu hauen erabilera baimentzen da mediku ziurtagiria ekartzen dutenei.

- 22.g) artikuluan aforoak gaurkotu behar dira.

Kodea	H20/00187	Udala	ARRASATE
Data	2020/ots./25	CUDO	000.0055.AAAAHLRW.L.Kd2j
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHLRWL.Kd2j		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2019SSEC0059

Gaia: ARAUDI PLANA 2020
Hasiera eguna: 2019/11/11

- 26. Artikulua. Gaurkotu beharra dago, ez da gimnasioko aholkularitza zerbitzuengatik bestelako kuotarik ordaintzen.

30.artikulua. Skate eta pista irristaketa pista. Gaurkotu beharra dago, gaur egun ez dago instalazio barruan.

- ERANSKINA: UARCAPEKO BOULDERRA ERABILTZEKO ARAUAK: 8 - 12 bitarteko artikuluak xedatzen duten funtzionamendua aldatuta dago, sarreran tornu bat jarri zenetik, beraz, egokitu beharra dago.

Bestalde, igerilekuetan aforoa gainditzen denerako irizpideak arautzeko beharra sortu da, langileek euren lana egitea errazteko.

HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA MUGIKORTASUNA SAILA:

1.- ARRASATEN, ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZA

Ordenantza aldatzeko beharraren justifikazioa:

2013an indarrean sartu zen Arrasateko araupeko aparkalekuaren gaineko Udal Ordenantza. Ordenantza horren bidez lehenengo aldiz ezarri zen araupeko aparkaleku sistema, esparrua izan duena herrigunearen zati mugatu batean. 2014. urtean ordenantzaren aldaketa bat onartu zen eta erdiguneko beste gune mugatu baten ezarri zen aparkaleku mugatu sistema.

2017 eta 2018 urteetan zehar Mugikortasun Iraunkorreko Plan Integrala (MIPI) landu zen, eta onartutako neurrietako bat izan zen araupeko aparkaleku sistema herrigunera izaera orokorrarekin zabaltzea.

Hori horrela, MIPI garatuko duen araututako aparkaleku sistema berria inplantatzeko hura antolatuko duen ordenantza onartu beharko da, gaur egun indarrean dagoena berrikusiko duena.

UDALTZAINGOA:

1.- ZIRKULAZIOAREN ETA HERRI BARRUKO BIDEEN ERABILEREN GAINEKO UDAL ORDENANTZA

Arrasateko Zirkulazioaren eta Herri Barruko Bideen Erabileren gaineko araudia, Udalbatzak 2014/03/19an onartu eta GAO, 2014/04/08an argitaratu zen.

Ordenantza eguneratu beharra dago eta gaur egun indarrean dagoen Legeetara egokitu.

Kodea	H20/00187	Udala	ARRASATE
Data	2020/ots./25	CUDO	000.0055.AAAAHLRW.L.Kd2j
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHLRW.L.Kd2j		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2019SSEC0059

Gaia: ARAUDI PLANA 2020
Hasiera eguna: 2019/11/11

Bestalde, araudian txertatu beharra dago seinalizazioari buruzko atala.

2- UDALTZAINGOAREN ANTOLAMENDUAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA

Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoa garatzeko, Arrasateko Udaltzaingoen Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren Araudia eman beharra dago.

Araudi honen xedea da Arrasateko Udaleko Udaltzaingoa arautuko duten jarduketa- eta funtzionamendu irizpideak ezartzea, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz.

Hori horrela, Barne Antolaketaren Batzordeak osoko bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa: 2020rako Araudi Plana onartzea aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea”.

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2020ko otsailaren 25ean.

O.E.

Alkatea

Kodea	H20/00187	Udala	ARRASATE
Data	2020/ots./25	CUDO	000.0055.AAAAHLRW.L.Kd2j
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHLRWL.Kd2j		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

